

Funtsezko baliabideak

Hainbat baliabide izango ditugu, gure enpresa aurrera eramateko.

Baliabide fisikoak: lehengaiak behar izango ditugu gure armairua eraikitzeko. Hala nola, egurra, metala... Baita ere teknologia izan beharko dugu adibidez makineria gure armairua domotizatzeko. Eskulangileak armairua eraikitzeko eta garraiolari batzuk gure produktua bezeroengana hurbiltzeko eta lehengaiak fabrikara eramateko.

Baliabide intelektualak: Hainat motatako langileak izan beharko ditugu; diseinatzaile bat, itxurari eta erabilgarritasunari ekingo diotenak eta programatzaileak, armairua duen teknologia ezartzeko.

Giza baliabideak: Publizistak, bezeroen arreta deitzeaz enkargatuko dira; giza harremanetaz arduratuko diren pertsona batzuk, hauek arduratuko dira langileen eta zuzendarien arteko komunikazioa eta bezeroen eta langileen bitartekaria izango dira.

Finantza-baliabideak: kontabilitateaz arduratzen den pertsona batzuk.